

DESKRIBAPENA

Gure proiektuaren ideia, egun bizitzen ari garen pandemia mundialak ekarri dizkigun ondorioetatik atera da. Covid-19ak bai ekonomikoki eta baita sozialki ere ondorio latzak ekarri ditu mundura eta familia asko eta askok eguneroko bizitzarako behar ditugun lehengaiak eskuratzeko arazoak ditu.

Gure ideia, eguneroko bizitzari normaltasunez aurre egiteko arazoak dituen jendeari laguntza ematea da. Horretarako elkarte bat sortzea penstatu dugu non bilketak egingo ditugu presentzialki eta web orri baten bidez. Web orrian aukera izango duzu diru donazioak egiteko nahi duzun arlora zuzenduak. Bertan baita ere egitasmoaren inguruko informazioa txertatzen joango gara.

Modu presentzialean egingo ditugun bilketak izango dira biltzeko etxean dituzuen txikiak geratutako erropak, txikitako jostailuak iada ez dituzuenak erabiltzen... eta horrelako hainbat gauza.

Guk sortu dugun elkarteak "RALLO" izena du eta gure eginkizun nagusia, janaria, arropa, jostailuak eta ahal den neurrian dirua biltzea da, ondoren hau, gehien behar duen jendearen eskuetara iristeko. Gu talde txiki bat garenez, gure lana, lehengaiak bildu eta bitartekari lanak egitea da, lehengaiak donatzen dituen jendearen eta ONG handien artean. Talde txiki bat gara, baina gure ideia aurrera eramaterako orduan ez gara bakarrik egongo. Esperientzia handia duten hainbat talderen laguntza izango dugulako.

